

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

GIZA BALIABIDEEN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Herritarren Segurtasunaren Saileko Udaltzaingoaren Zerbitzuan 11 udaltzain-lanpostu betetzeko enplegu-eskaintza publikoaren deialdia onestea

Vitoria-Gasteizko Udaleko Herritarren Segurtasunaren Saileko Udaltzaingoaren Zerbitzuan 11 udaltzain-lanpostu betetzeko enplegu-eskaintza publikoaren deialdia onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko azaroaren 27an egindako ohiko bilkuran.

Herritarren Segurtasunaren Sailak, Giza Baliabideen Sailarekin koordinatuta, Udaltzaingoko 11 agenteren lanpostuak betetzeko enplegu-eskaintza publikoaren deialdia egitea aurreikusten du, Udaltzaingoaren Zerbitzurako jardueren artean.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua onetsi zeneko urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 70. artikuluan xedatzen denez, "Giza baliabideen beharrianak daudenean, eta, horretarako aurrekontuko diru-izendapena egonda, langile berriak sartzeari beharrezko denean, enplegu publikoaren eskaintza egin behar da, edo langile-beharrianak betetzeko antzeko beste kudeaketa-tresnaren bat erabili; horretarako, beharrezkoa izango da [...] hautaketa-prozesuetarako deialdia egitea". Prozesu horietan, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipio konstituzionalak errespetatuko dira, baita aipatutako legearen 55. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoak ere.

Ilido horretatik, Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak 23. artikuluan xedatzen du, Administrazio Publikoetako langileekin bete ezin diren giza baliabideak, aurrekontu-izendapena dutenak, enplegu-eskaintza publikoaren bidez beteko direla.

2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 19. artikuluan honela xedatzen da:

1. Aurreko artikuluan mugatutako sektore publikoan langile berriak sartzeari — salbu eta merkataritza-sozietate publikoak eta enpresa-entitate publikoak, eta sektore publikoko fundazioak eta partzuergoak partaide nagusia sektore publikoa osatzen duten administrazio eta erakundeak direnean, horiek lege honen hogeita zortzigarren, hogeita zortzigarren eta hogeita bederatzigarren xedapen gehigarrietan ezarritakoaren arabera arautuko baitira, hurrenez hurren, eta Estatuko organo konstituzionalak— hurrengo ataletan ezarritako muga eta betebeharren mende egongo da. ...

Nolanahi ere, gastuen aurrekontuko I. kapituluan baliagarri dagoenera egokitu beharko da eskaintza.

5. Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetarako, Polizia Autonomikoko Kidegoetarako eta Udaltzaingoetarako, berritze-tasa ehuneko 115ekoa izango da.

Antolakuntzaren Kudeaketaren Zerbitzuaren 2020ko azaroaren 13ko txostenean jasota dagoenez, 11 lanpostu dauden hutsik, eskaintza publikorako, eta horietatik lauk hizkuntza-eskakinaren derrigortasun-data igaroa dute.

Eskaintza negoziatzearen inguruan Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 37. artikuluan xedatutako betetze aldera, udal honetako atal sindikalekin negoziatu da, 2020ko azaroaren 12an.

Horrenbestez, eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak —abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua— 127. artikuluan aitortzen dizkidan eskumenez baliatuz, eta 2019ko ekainaren 21eko erabakiaren bitartez Giza Baliabideen arloko zinegotziaren esku utzitako aginpi-dea betez, Giza Baliabideen Arloko zinegotzi ordezkariak erabaki-proposamen hau aurkezten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

Lehena. Udaltzaingoko 11 agente-lanpostu betetzeko enplegu-eskaintza publikorako deialdia onestea —lanpostu-kodea: 8013, Udaltzaingoaren Zerbitzua, Herritarren Segurtasunaren Saila (035010), C taldea, C1 azpitaldea, Udaltzaingoko oinarrizko eskala, agente kategoria (6003C); titulazioa: Z00 batxilergoa, edo Z02 lanbide-heziketa, goi-maila, edo 300 goi-mailako batxilergoa, LH II modulu profesionala, 3. maila edo baliokidea, gidatzeko baimena CB 08 - B, eta CB 09 -A, 02 IT txartela, 2. hizkuntza-eskakizuna (horietatik lauk derrigortasun-data igaroa dute); destino-osagarria 19 eta berariazko osagarria 500; ehuneko 100eko dedikazioa—.

Bigarrena. Enplegu-eskaintza publiko hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko azaroaren 27an

Giza Baliabideen zinegotzi ordezkaria
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE